

DROGETEN

ITTURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria
2024ko MARTXOA - 331 zenbakia

Marokon barrena elkartasuna zabaltzen





IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatu.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatu.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

Bertoko kantuak Herritarren ahotik

Gaia: Erronda-kantua

Kanta kantari baniharduen

(Entzuteko: www.alboka.es)

Kanta kantari baniharduen
behin Gernikako kalia,
Goardia Zibilak etorri eta
eraman ninduen aurrian.
Baita kartzelan sartu ere ni
eskarmentatzeko ustian,
baiña ni ezin eskarmentatu
neria kantatu artian.



**Euskal
Birusa
Elkartea**

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.drogeteniturri.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Estibalitz González,
Nahia Ruiz Albizuri
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA

ETA MAKETAZIOA:

Dorleta Vidal.

AZALEKO ARGAZKIA:

Carmen Hernández.

LAGUNTZAILEAK:

Ermua BHI Institutua, Patxi López,
Valentin Mugarza, Jon Saez eta Libe
Solozabal.

ARGAZKIAK:

AEK, Berbalagun, Ermua BHI Insti-
tutua, Estibalitz González, Maider
Gorospe, Carmen Hernández, Kike
Infame, Mallabia FT, Valentin Mugar-
za, Marga Pérez, Nahia Ruiz Albizuri,
Txindurri dantza taldea eta Dorleta
Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Maren Aguirre, Manex Prieto
eta Piedi Eizagirre.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrik ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



ERMUKO UDALA



MALLABIKO UDALA



HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Maidor Gorospe · Burgos

“Asko gustatzen zait jendea bisitan etortzea eta haiei hemengo txokorik berezienak erakustea”

2007an joan zen Maidor Gorospe ermuarra Burgosera bizitzera. Lanean hasi, ezkondu eta seme-alabak izan zituen urte gutxitan, eta guztiz errotuta dago bertan. Hala ere, lotura sendoa dauka Euskal Herriarekin, eta sarritan joaten da Donostiara familia bisitatzen.

Testua **DORLETA VIDAL**

Zer dela eta joan zinen Burgosera?

Nire bikotekidea Elgoibarkoa izan arren Burgosen egiten zuen lan, eta tarte baten lana bilatzen egon ginen biok: ni Burgosen eta bera Euskal Herrian. Nik topatu nuen lana lehenengo, eta Burgosera bizitzera etorri nintzen, 2007ko apirilean. Urte bereko azaroan ezkondu ginen, eta hiru seme-alaba izan genituen gero. **Lana topatutakoan, erabaki erraza izan zen hara joatea?** Bai, ez zitzaidan asko kostatu. Familia eta lagunak lagatzea pena eman zidan, eta nire beldurrik handiena zen lanean eta aisialdian gustura ez egotea, ez egokitzeta. Baina ilusio handiarekin etorri nintzen.

Familiarik edo ezagunik zeneukan Burgosen?


Bai, ama Burgosko herri batekoa da, eta lagun batzuk

nituen hiriburuan. Horrek gauzak erraztu zizkidan, hasieran batez ere.

Gogoratzen dituzu lehen hilabeteak?

Bai, eta gogoan daukat Ermuan bizi nintzenean pentsatzen nuela hura zela munduko lekurik onena, baina irtendakoan konturatu nintzen ez zela hainbesterako. Hemen mila leku daude paseatzeko, bizikletan mugitu zaitezke, monumentu asko daude, aisialdi, kirol eta

“Hemen hotz handia egiten duen arren, oskarbi egon ohi da, eta argitasun handia dago”





kultura eskaintza oso zabala da... Horretaz jabetzeak sentsazio arraroa sortu zidan.

Zerbaitek harritu zintuen?

Beti entzun izan dut Burgosen hotz handia egiten duela, eta hala da, baina oskarbi egoten da eta argitasun handia dago: hamazazpi urteotan bi elurte bakarrik ikusi ditut! Hotza baina, haizea nabarmenduko nuke nik.

Nolakoa da bertako jendea?

Atseginak izan arren, burgostarrak nahiko itxiak dira orokorrean. Segituan igarri nuen kanpotik etorritakoak askoz ere irekiagoak ginela, baina hala ere, umeei esker arin hasi nintzen bertako jendea ezagutzen.

"Gaur egun euskara ulertzen dut eta esaldi laburren bat esan dezaket, baina asko kostatzen zait"



Euskarari eutsi diozu?

Ezetz esango nuke: ulertzen dut eta esaldi laburren bat esan dezaket, baina konturatzen naiz asko kostatzen zaidala. Seme nagusia izan nuenean saiatu nintzen, baina garai hartan Euskal Herritik kanpo euskara ez zegoen oso ondo ikusita, eta ez nintzen eroso sentitzen. Gaur egun damutzen naiz tematu ez izanaz.

Seme-alabek zer nolako harremana daukate Euskal Herriarekin?

Hilero goaz Donostiara bisitan, nire gurasoak bertan bizi direlako, eta udan hamabost egun-edo bertan egoten dira, kirol eta ekintza ezberdinak egiten. Gustatzen zaie, baina hemen daukate bizitza eta lagunak, eta gero eta gehiago kostatzen zaie joatea. Eta urrun egon arren, Athletic zaleak dira, ni bezala!

Zer egiten duzu aisialdian?

Fitboxing-a praktikatzen dut eta ibilbide ezberdinak egitea gustatzen zait. Asteburuetan, poteo eta pintxo batzuk jaten ditugu sarritan eta, ahal dugunean, herri-txo batean daukagun etxera joaten gara asteburu pasa.

Gustura zaude?

Bai, oso gustura. Dena den sarritan galdetzen diot nire buruari nola izango litzatekeen nire bizitza Ermuan jarraituko banu: zeharo desberdina ziurrenik, baina seguru gustura egongo nintzatekeela ere.

Noiz egon zara Ermuan azken aldiz?

Duela hiru bat urte, txikitako eskolako bazkari batean.

Ermura bizitzera bueltatuko zinateke?

Ez, ez dut uste. Gaur egun hau da nire lekua, eta oso gustura nago. Orain hangoei tokatzen zaie bisita egitea, asko estimatzen dut-eta lagunak noizbehinka etortzea, eta hemengo txoko eta taberna berezienak erakustea.

Ermuko historiaren atalak komikietan jasota

Mikel Begoña gidoilaria, Kike Infame ilustratzailea eta Daniel Gojénola kolorista dira "Ermua binetetan" komikiaren egileak. Ermuko Udal Liburutegiak sustatutako proiektu honi esker, herriko gertakariekin eta pertsonaia ezberdinekin lotutako pasarteak jaso dira bi komiki ezberdinetan: *Saturno Ermuan* (2022ko abenduan argitaratua) eta *1794. Marte eroturik* (datozen asteotan aurkeztuko dena).

Testua **DORLETA VIDAL**

Kike Infame marrazkilaria bilbotarrak aspaldidanik dauka lotura Ermuarekin, Udal Liburutegiak eskaintzen duen komikien irakurketa klubeko dinamizatzailea baita hasieratik, 2018tik. 2022an, gainera, harremana estutu egin zen, berak eta Mikel Begoña gidoilari eta historialari sopeldarrak "Komikia: Euskal komikia 1975etik 2017ra" erakusketa ekarri zutelako gurea. "Ermuko Udal Liburutegiak komikiaren aldeko apustua egin zuen aspaldi —aitortu dute biek—, eta esan daiteke esparru horretan aitzindaria dela Bizkaia osoan".

Duela urte batzuk, Liburutegiko arduradunek sumatu zuten herriaren historian bazeudela atal batzuk nahiko ezezagunak zirenak gazteentzat, eta komikiaren bitartez, modu atsegin eta entretenigarrian landu zitezkeenak, eta horrela sortu zen lehen komikia, *Saturno Ermuan*, 2022ko abenduan aurkeztu zena. Bertan herriko bi pertsonaia ezagunen bizitzen pasarte batzuk jaso zituzten: Frantzisko Izagirre "Patziko" eta Alejan-

dro Aranburu "Droget" ermuarrena, hain zuzen ere.

Udal Liburutegiaren eskaera jaso zutenerako, Infamek eta Begoñak 2017tik zeramaten elkarrekin lan egiten, komikiarekin lotutako proiektu ezberdinetan. Eta urte batzuk geroago, 2021ean, Daniel Gojénola kolorista batu zen taldera, "Txakomic" proiektua abian jarri zenean, eta hirurek elkarrekin oratu zioten Ermutik zetorren lan proposamenari.

Dokumentazioa

Lehenengo pausoak herrian bertan eman zituzten, Liburutegiak bisita gidatu bat egin zielako Ermutik, historiaren eszenatoki ezberdinak ezagutarazteko, eta bi pertsonaien ingurugiroak ezagutzeko. "Ibilbide hori egin eta gero, Mikel konturatu zen bi Ermua daudela, eta horren isla jaso nahi izan zuen lehen komikian", dio Infamek. Bigarren komikirako, aldiz, Liburutegiak gertakari bat aukeratu zuen, duela bi mende baino gehiago jazo zena, eta egileek lan egiteko modua aldatu behar izan zuten.





Ezkerretik hasita, Daniel Gojénola (kolorista), Kike Infame (marrazkilaria) eta Mikel Begoña (gidoilaria) Bilboko Plaza Berriko arkupeetan.



Berdin-berdin, historia-
ren atal bat idatzi ahal izateko, dokumentazio lan sakona
egin behar izan zuten, baina bi komiki hauetan modu
ezberdinean burutu da lan hura. "Lehenengo komikia
1920. urtean kokatzen da, eta ahozko testigantzak jaso-
tzeko aukera izan nuen, ahotsak.com atarian —azaldu
du gidoilaria eta historialaria den Mikel Begoña—.
Bigarrenak, aldiz, 1794. urteko sutea jasotzen du, eta
idatzizko informazioan oinarritu behar izan naiz. Kasu
honetan, ia guztia ezaguna izan arren, gaian sakonduz
gero, erreferentzia interesgarri asko topatu daitezke,
testuinguru historikoa oso berezia izan zelako".

Prozesuaz gozatu duten arren, denboraz estu ibili
dira, lana burutzeko epea oso laburra izan delako (bi
hilabete eskas), eta Liburutegiari aurkeztutako lehen
bertsioa ez zelako haien gustukoa izan. "Berrito hasi

Aurtengo abuztuan 230 urte beteko dira Frantziako armadak Ermuko eraikin asko erre zituenetik

**"Dokumentazio-lan sakona egin
behar izan dugu garaiko elementu
guztiak modu egokian jasotzeko"**

behar izan genuen, eta beste modu batera planteatu.
Bigarren saiaketa horretan testu gehiago jarri genuen,
kronologikoki ordenatuta, testu-kaxetan oinarrituta...
Komiki tradizionalagoa sortu dugu azkenean, baina
gehiago gustatu zaie".

Izan ere, orri gutxitan, herriko pasarte garrantzitsu
bat jasotzen da, askorentzako ezezaguna dena: 1794an
Frantziako tropak Ermuko kaleetan sartu ziren, eta
burdinaz eta suz suntsitu zituzten hiriaren egitura
gehienak. Aurtengo abuztuan, 230. urte beteko dira
gertaera traumatiko horretaz, eta egindako dokumen-
tazio lanari esker, gerran parte hartu zuten herritar
batzuen izenak irakurri daitezke, hala nola hildako
herritarren izenak ere.

Edukiak adostu eta gero, sinopsian jasotzen diren
edukiak irudietara eramateko prozesua burutzen da,
eta esparru horretan ere ezinbestekoa da dokumenta-
zio-lan sakona egitea: arropak, kapelak, orrazkerak,
armak, lanabesak, herriaren beraren itxura eta anto-
laketa, materialak... eta gidoilariaren, ilustratzailearen
eta koloristaren artean elkarlan estua burutzen da:
dokumentazio idatzia partekatu, irudiak, grabatuak,
pelikulak... "Erronka handia izan da garaiko elementu
guztiak jasotzea hanka sartu barik —esan dute—. Eta
informazio dezente dagoenez, ahalegindu gara irudiei
dinamismoa ematen kolorearen eta efektuen bitartez,
komikia erakargarriagoa, arinagoa eta irakurterraza-
goa egiteko".

Kolorearen pisua

Infamek eta Begoña azaldu dutenez, kolorea bera len-
goaia bat da, eta berebiziko garrantzia dauka irakurlea
istorioan murgildu ahal izateko. Gojénolak, aldiz, ga-
rantzia kentzen dio: "nik apaingarri bat jartzen diot
marrazkilariak eta gidoilariak egindako lanari, besterik
ez". Baina Kikek eta Mikelek ez dute berdin ikusten,
eta Gojénolak proiektuan izan duen pisua handitzen
joan da ale batetik bestera.

"Kolorearen esparruan, badago lan bat nahiko mo-
notonoa dena, koloreen banaketa deritzona. Prozesu
horretan kolore berdina eramango duten aldeak mar-
katzen dira, eta koloreztatu gero. Lehenengo komikian,
nik gidatu nuen Gojénolaren lana —azaldu du Kikek—,
kolore ezberdinak gustatzen zaizkigulako: Nire koloreak
oso planoak dira, testurarik gabekoak; Gojénolarenak,
ordea, biziak dira, testura eta efektuekin. Bien arteko
oreka topatu behar izan genuen". Bigarren komikian,
ordea, Gojénolak hartu zuen kolorearen ardura osoa.
Izan ere, lan honetan koloreak sekulako garrantzia
dauka, gerra eta sutea irudikatze ezinbestekoa tres-

nak direlako, azaldu dutenez.

Bigarren komikia oraindik ere argitaratu eman ez den arren, hurrengo aleari begiratu daude egileak. "Gustatuko litzaizuke bilduma honek jarraipena izatea, baina badakigu Udal Liburutegiak ahalegin handia egiten duela beratu finantzatzeko" onartu dute. Alde horretatik, komiki bakoitza planeta batekin lotu dute (Saturnoarekin lehena eta Marterekin bigarrena), eta besterik kaleratuz gero, hari horretatik jarraituko lukete, gertaerak edo pertsonaiak objektu astronomikoekin lotuz.

Euskal komikia

Infame, Begoña eta Gojénola komikiaren munduan murgilduta daude bete-betean, eta honen berpizkundearen zati eta lekuko dira aldi berean. Azaldu dutenez, azken urteotan, euskal komikiaren egoera aldatu da, neurri batean Eusko Jaurlaritzak ematen dituen dirulaguntzei esker, eta baita egileek gero eta gertuagoko gaiak buruz hitz egiten dutelako, euren esanetan: "Euskal komikia esponontzialki hasi da: duela hamarkada bat 6 komiki argitaratzen ziren urte osoan, eta gaur egun ia 70 argitaratzen dira!".

Komiki horiek gai anitzengatik ingurukoak izaten dira, eta

"Gure erronka da sortu berri den euskal komikiaren industria egonkortzea"



aspaldidanik oso ohikoa da hiru istorio mota lantzea: fikziozko istorioak, ondo dokumentatutako egoeretan oinarritutako fikziozko istorioak eta fikzioa ez diren istorioak", azaldu du Begoñak. Hala ere, bide berriak urratzeari ekin diote komikigileek: Harriet Edicionesek, esaterako, manga komikiak argitaratzen ditu euskaraz, manga baita gaur egun gazteek irakurtzen dutena.

Azken urteotan ere, umeentzako mundu berria zabaldu dela azaldu dute: Astiberriren *Iratxo Txikia* eta *Biga*, Bang-en *Super Patata...* "Orain arte ez da existitu euskal komikiaren industria, eta gure erronka da sortu berri den industria hori egonkortzea. Gaur egun komikigile gutxi daude lan horretaz bizi daitezkeenak, eta daudenak oso modu prekarioan egiten dute lan", dio Begoñak.



ATE IREKIAK

APIRILAK 16

Asteartea

18:00

Eman izena!



ArmeriaEskola^x



“Aittan herixotziagaittik niri ez dosta parkaziñorik eskatu iñork”

Libe Larrinaga · Durangoko bonbardiuek hildako baten senide



1937ko martxuen 31n, Espainiako Gerra Zibila bete-betien zala, italiar abioiek Durango bonbardiau eben bando nazionalako militar buruen aginduz. 336 pertsona hil ziren erasuen ondorioxoz, tartien Bixente Larrinaga Guenetxea mallabitarra. Libe alabiakin egoteko aukerie izan dogu Gernikako honen etxien.

Testua **ESTIBALITZ GONZÁLEZ**

38 urte zittun Bixentek eta Agustina Solozabal Unamunzagakin ezkontute euen, hau be geriarra. Bost urteko alaba bat euken bikotiek, Begoña, eta urte eta erdiko beste bat, Libe. Zorigaiztoko egun horretan goizien-goiz urten eban Saihetzaneko bere baserritik.

modukuek postietan lotute, eta aittan ogibidie zan haretxen mantenimenduaz arduratzie. Hillan amaierie zan; biherreko kontuek eruten jun Durangora eta bertan atrapau eban bonbardiuek.

Gorpurik ekarri otsuen?

Aitte Durangoko bonbardiuen hil jatsun...

Nik ez dot esaten hil zanik, ez ezan berez hil, bonbak erahil eben. Martixan 31an Durangoko bonbardiuen erahille izan zan, asesinaute, italiarrak Frankoren aginduz Durango bonbatu ebenien. Gure ama bi neskato txikirekin eta baserriko biher danen kargu geratu zan.

Zer dala-eta jun zan bertara?

Biherreko gauzak eittera. Hirurak Bat zan bera ebillen enpresian izena eta Izubittetik urran, Bolintxun, argi-indarran zentrala eken. Handik Garaire, mendiz mendi eta landarik landa, argi-linea bat joién, alanbre



Keba. Leidu dotenagaittik eruen zittuezen pilluek eta pilluek kanposanture edo dana dalakora, eta ein dabez ahaleginek topatzen, baina ez die agiri. Nun enterraute daozen ez dabe topatzen, danak pilluen sartute dagoz. Kanposantuen, izen morduaz batera, plaka baten berana be ipinitte dago, barren samarrien. Urtero Durangon eitten dan ekitaldire jutén gara bere izena han jarri ebenetik.

Zelan jakin zenduen hil zala? Zeinen bittartez?

Ba hori ezin dotsut esan. Hori bai, hurrengo egunetako baten Gerien enterrue ein jakon, gorpu bakue. Usadizue zan modure, jendiek dirue emon eban abadiék aittan aldeko mezie etaratzeko eta gorrixen



Larrinaga Solozabal familia, sasoi desbardiñetako argazkixekin eindako erretratuen.

diruek zienez, gorrixen denporakuek, abadiiek esan eban: “Ni honek diruokin ez noie mezarik emoten!”. Eta atzera bota zittun, pentsau! Senitartekuen artien batu geroکو diru “balekuok”, eruen abadiorri eta orduen emon zittun mezok! Holakoik!

Laguntasunik jaso zenduen, amak gerrako alargun modure edo zuek bixok umezurtz lez?

Guk ezebez eta amak Frankoren denporan ez, gerora bai. Agrariatik, berak kotizautakotik kobratzen hasi zan eta aittana emon otsienien errebaiau ein otsien. Azkenien gitxi Agrariatik, bestetik asko bez... guztire be ezebezien geratu jakon. Amari entzunde deuketenetik, motorra euken gure aittek eta haretzekin jun zan Durangora; baztarren baten itxitte-edo, bonbardieuk ez eban apurtu. Pentsakeraz nazionalistie zan, eta hil zanien frankotarrak errekisau ein oskuen motorroi, gero subastara emon eta eibartar batzuk erosi. Gure amak ez eban ez motorrik ez haren dirurik ikusi, dana kendu otsien, ez zan sekule haraz jabetu, ifuera!

Eta senide eta auzokuen laguntasunik euki eban?

Bai, bai, beti. Auzuen jende asko bizi zan orduen, aldra itzelak euezen baserri bakoitzien eta alkarri asko laguntzen otsien.

Zuenien berba eitterik baeuen edo isillixen gorde zien gauzak?

Gure amak gauza gitxi kontau oskun, isilik eutsi otsen beti. Barrutik beranak pasauko zittun, baina guri ez oskun txarto esaten iñongaittik, sufridu ez deigun. Martixen 31 danadala gure amak, beran azkenan artien, akorduen euki eban beti. Aitte hil eta hillebete eskasera, aittan arrebie, gizona eta alaba bat Munitibarko bonbardiuen hil zien: orduen esaten zan modure “aurrera doiezela”, gerratik eskapan, zubipe baten atrapau zittun bonba batek. Izeko-osabak eta lehengusiñak Ermuen bizi zien ordureko eta lodixe izan zan ha be.

Zergaittik uste dozu ez ebalu ezer kontatzen amak?

Bildurre euelako. Aitte hilde egon arren be, etxie erregristrau ein eben gurien. Ama mutu euen, badaezpada ez eban ezer esaten, errepresalien bildurrez. Gurien eta danien euen bildurre. Guk eskolan erderaz ein biher gendun, eta ez genkixen. Espainiako banderie ipini eskolian aurrien eta hari kantatzen ume danak, “Cara al sol” eta “¡Viva España!”ka, eskue altxaute. Kantau ein biher! Ordukeuk denpora gogorrak izan zien, gu umiok ez giñen konturetzen, baina nausixek bai.

Franco hil zanien, zer pentsau zendun?

Bakie ein dabela! Makiña heriotza ipiñi eban harek, baiña frankokumak hemen dagoz ondiñok. Guzurre besterik ez: bestiek diela lapurrek eta hau eta bestie...

Hildakuen gomutaz, Durangoko kanposantuen jarritte dagozan bi plaketan, bere izena ez dago idatzitte euretako baten. Zergaittik?

Lehelengo izen-zerrendarako ez eukielako bere heriotzian barri. Amak ez euskun ezer esaten eta ez zan

“Abadiiek ez zittun hartu gure aitten aldeko mezak emoteko diruek, gorrixen sasoko diruek zielako”

AMALUR
FISIOTERAPIA

688 61 98 96
zeharkale 12 bajo
48260 ERMUA

IRENE ESQUÉ col 1666 EGOITZ FORMOSO col 1675

ANTIXITIKETAN AISIALDIA

• Diputazio kalea, 8 - 10, behea.

PSIKOMOTRIZITATEA LOGOPEDIA
PSIKOTERAPIA LUDOTEKA
ERREFORTZU ESKOLARRA

☎ 943 576 124 🕒 10.00 - 13.30
☎ 747 453 607 🕒 15.30 - 19.30

📍 Antixikitetan 📧 Info@antixikitetan.com

“Eskolan lagunek “aitte” esaten eben eta guk ezin holakorik esan, aittaik ez gendun-eta”

bera be iñora juen iñori esatera. Durangoko bonbake-tan hildakuen artien aitte ez zala aittatzen konturau nintzanien, Gerediagakuekin kontaktau neban. Agiri batzuk aurkeztu biher izan nittun eta geruago jarrit-teko plakan, han bai, han idatzitte dator bere izena.

Gerediagak noztik eitten dotsue konbitie Martxoaren 31ko omenaldi eta lora-eskaintzan parte hartzeko?

Oin dala hamar bat urtetik hona, beran izena plakan jarri ebenetik. Emozionantie izeten da eta gustura juten gara.

Dokumentalak, liburuek eta testimonixo asko eta asko batu die honek urtiotan. Zuk zer sentitzen dozu



Birrintutako Santa Maria parrokiako portikue.

horrek entzuten edo ikusten dozuzenien?

Tristezixe, hainbeste urte pasau eta gero be malkuek etortzen jataz begixetara. Niri ez doste parkaziñorik es-katu iñork ondiñok. Iñopez! Zeiñek eskatu biher daben ez dakit, baiña damurik ez da egon hemen.

Faltan bota dozu aitte?

Sarritten, ezagutu ez baneban be, eta ho-rregaittik deuket beran erretratue quadro baten neure ohien aurrien. Martixen 31n hil eta nik abuztuen urte bi ein nittun. Ahizti-ek bost urte ekazen eta harek be ez euken bere akordurik, “Zeozer, zeozer baina gitxi...” esaten eban. Eskolara Gerire juten giñen; olgetan eitten gendunien lagunekin eta etxeko komentarixon bat eitten ebenien, “aitte” esaten eben, baina guk ezin holako-rik esan, aittaik ez gendun-eta. Bixotzien arantza bat beti!



1937ko Durangoko bonbardiu- en hildakuen omenezko monumentue bertako kanposantuen

ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza
Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

Psikologia
Ongizate pertsonalerako zentroa

GUZTIOK
Nahia Rojo Bustindui
Psikologoa eta Sexologoa
Zubiaurre 40 · Ermua
Hitzorduak: 688 85 18 95

MUSIKA ESKOLA

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardinoa
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00
albokamusikaeskola@hotmail.com

KRABI
Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

OSTEOPATIA
Pablo Lucena

617 680 156
info@osteopatialucena.com
Probaleku 5 - Ermua (Bizkaia)

Martxan da Mallabiko "Ez esan!" galdera-erantzunen jokoa

28 lagunek parte hartu dute Berbalagunek antolatutako "Ez esan!" jokoa lehenean hilabetean (otsailean), eta horietatik zortzik



asmatu dituzte galdera guztiak. Haien artean zozketa egin eta gero, Naia Unamunok eta Ibaia Azagirrek lortu zuten finalerako txartela, eta Unamunok, gainera, hilabeteko opari-sorta jaso


zuen. Martxoko jokoa ere martxan da, eta dagoeneko galdera-erantzunen orritxoak jaso daitezke herriko hainbat tokitan (dendan, tabernetan, liburutegian...).

Bikote durangar batek irabazi zuen frontenis txapelketa mistoa

Martxoaren 16an burutu zen aurtengo fronteniseko maratoi mistoa Mallabiko frontoian, Mallabia FTk antolatuta. Txapelketa bifasetan banatuta egon zen (eskualdekoa eta orokorra) eta bietan nagusitu zen Leire Dueñas eta Endika Romero bikote durangarra, "ezusteko garaipena" lortuta, antolatzaileen esanetan. Izan ere, eskualdeko kategorian, Itsaso Pradera eta Andoni Aldape mallabitarrak hartu zituzten mendean. Kategoria orokorrean, bestalde, Lorena Barrón eta Diego Romero errioxarrak kanporatu zituzten finalaurrekoetan (16-



15) eta finalean Jony Serna burgotarra eta Inge Sancristobal bilbotarraren kontra jokatu zuten, eta 14-13 irabazi. Laia Sarasibar eta Julen Insausti nafarrek hirugarren postua eskuratu zuten.

Jon Albizu
Ainhua M. Goitandia

Extremadura zeharbidea z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Tel.: 943 174 505




Torrealday

ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA


ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA ERMUA

Plan B


Coffee Lounge Gin & Beer



Horacio Decoración
TAPIERIA - ALIZABIAE - OSAGARRIAE



VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80 / 688 61 06 38
www.dghoraciodecoracion.com





Pisilluen arbolak erdi estalia, elizako kanpandorrea.
Argazkilaria: Marga Pérez.

Kultura Sailak Santixauetako kartel lehiaketa deitu du

Ermuko Udaleko Kultura Sailak Santixau Jaiak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa abiatu du. Parte hartu nahi dutenek hiru lan aurkeztu ahal izango dituzte gehienez, eta guztiak eraman beharko dute lelo hau: "Santigos 2024 Ermuko jaiak". Izena emateko, munduarti.com plataforma digitalera jo beharko da, maiatzaren 8ko 23:59ak baino lehen, eta .jpg formatuko lanak bertan erregistratu (gehienezko pisua: 5Mb). Maiatzaren 17an, epaimahaiak irabazlearen izena jakinaraziko du, eta horrek 600 euroko saria jasoko du.



Apirilaren bigarren asteburuan ospatuko da Euskal Jaia Ermuan



Txindurri Txistu eta Dantza taldeak egitarau zabala prestatu du 45. Euskal Jaia ospatzeko. Ekitaldiak apirilaren 12an hasiko dira, ostirala, Elgoibarko Patxangoi elektrotarangarekin (20:00etan). Larunbatean, hilak 13, Ermuan Kantuan eta dantza poetoa egingo da Patxi Plazan hasita (12:30etan). Arratsaldean, Txindurri eta Gasteizko Eguzkilore dantza taldeen erakustaldia egingo da plazan (19:00etan), Larraindantza (19:45etan) eta erromeria Sukar taldearen eskutik (20:00etan).

Hurrengo egunean, apirilak 14, igandea, hamarretakoa jango dute Txindurri taldeko ume guztiak elkarrekin San Pelaio parkean (10:30etan), eta jarraian kalejira egingo dute herriko kaleetan barrena (11:00etan). Alardea 12:00etan izango da plazan eta bazkalostean, dantza saio gidatua egongo da (16:30etan). Asteburuari amaiera emateko, plaza dantza saioa eskainiko du Ttipika taldeak (17:30etan).

LEIRE RASCO
BIZARTEGIA
ILEAPAINDEGIA
943 17 17 96
@LEYTHEBARBER
C/GOIENKALE NS
ERMUA (BIZKAIA)

ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT
ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikokoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.
www.zermik.com
Usaetze plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

Kopi-Fax
FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOAK
INPRIMAKETAK KAMISETATAN
Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

TALAPARTA ABERNA
Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!
- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...
Erdikokale 13 (Ermua) ENKARGUAK 943 030 299



Mallabiko lekukoak:
 Zaparrada Elkarte, Askalde,
 Biharko Izarrak, Nahikari
 Elkarte, Gazte Alaiak Dantza
 Taldea, Mallabiko Eskola eta
 Guraso Elkarte, Jubilatuek,
 Mallabiko Udala, Orbea, Mendibil
 abesbatza, Lorea-Rober, Mallabiko
 Berbalagun, Futbito taldea, Pilota
 taldea, Txondor Herri-kirol Taldea
 eta Mallabiko EH Bildu.





Ermuko lekukoak:
 Artarrai Mendi Taldea,
 Errotabarri Eskubaloi Taldea,
 Maider, Ermua CD, Herri Muga,
 Errealzaleak, Ermuko Mugimendu
 Feminista, Ermua Palestinarekin
 Ekimena, Berbalagun, Eitzako
 Auzo Elkarte, Ermua BHI
 Institutua, Eskoletako langileak
 (Ongarai, Ikastola, Eskolabarri
 eta San Lorentzo), Manah-mana,
 IMD Kiroldgia, Euskal Birusa,
 Monroe, Tokiotarrak, Merkatari
 Elkarte, Gipuzkoako Urak,
 Txindurri Dantza Taldea, Gazte
 Mugimendua, Elkartasuna, Alboka
 Musika Eskola, Ermuko Udala,
 EAJ, Elkarte Gastronomikoak,
 Bexen-Cardio, Anaitasuna
 Ikastolako IGE, Infreñu taberna,
 Bildu eta Bertso Eskola.

***Argazki gehiago
 drogeteniturri.eus atarian.**



“Abentura bila zoaz, baina bertan ikusten duzunak asetzen zaitu gehien”

Carmen Hernández, Josemi Hernández eta Miguel López · Pandemonium Raideko parte-hartzaileak



Carmen Hernández ermuarrak eta bere senarra den Miguel López salamancarrak osatzen dute Tabiok taldea (@tabiok) eta 2019an egin zuten Pandemonium Raid-a aurrenekoz: Maroko zeharkatzen duen lasterketa, non parte-hartzaileek material ezberdina banatzen duten hango herritarren artean. Amatasuna dela-eta, Carmenek ez du parte hartu aurten, eta bere neba den Josemi Hernándezek bidaiatu du Miguelekin Afrikara. Hirurokin batera hitz egin dugu abentura honi buruz.

Testua **DORLETA VIDAL**

Zer da Pandemonium raida?

Astebete irauten duen lasterketa da, Marokon barrena egiten dena: Atlas mendikatean hasten da, basamorturaino jaisten da, Merzougaraino, eta berriro gora bueltatzen da. Helburua ez da lehena heltzea, baizik eta bidean arropa, oinetakoak, mantak, eskola materiala, jostailuak eta janaria banatzea. Kotxeak topera eramaten ditugu!


Nolatan izan zenuten ekimen honen berri?

Carmen: Miguelek zazpi urte daramatza Eibarko tailer mekaniko batean lan egiten, eta bere nagusiak Pande-



Carmen Hernández arropa banatzen Atlasen, 2019ko edizioan.

moniumera joateko gonbitea egin zion, dron batekin euren bidaiia grabatzeko. Izugarri gustatu zitzaion, eta hurrengo urtean, 2019an, biok parte hartu genuen. Horretarako kotxe zahar bat erosi genuen (30 urte izen behar dituzte kotxeek gutxienez eta 60CV gehienez), konpondu, egokitu eta hara joan ginen. Topera



gozatu genuen, eta aurten, ni ezin izan naizenez joan, Miguel eta nire anaia den Josemi joan dira, martxoaren 2tik 9ra bitartean.

Zer nolako esperientzia izan da?

Josemi: Oso esperientzia polita, eta kontrastez bete. Atlaseko mendietan zehar ibili gara, 3.000 metro tara, inguru oso berdeetan, eta handik egun batzuetara basamortuan. Bizimodua oso ezberdina da bi leku horietan, jakina. Atlasen ikusi ditugun herrixka batzuk zibilizaziotik oso urrun daude, eta iazko lurrikarak bete-betean jo zituen. Ezer gabe bizi dira: 4 ardirekin eta asto batekin, kasurik onenean, eta hotzak akabazten daude. Haiei eman genizkien arropa gehienak.

Zenbat kilometro inguru egin dituzue?

4.000 edo 4.500 kilometro inguru, eta oso gogorra da. Joaten garen guztiok errepikatu egiten dugu, esperientzia zoragarria delako, eta horren eraginez aurreten adibidez ez da izen-ematea zabaldu, plaza guztiak beteta zeudelako. Horrek ez du esan nahi samurra denik: ordu asko kotxean, bide eskasak, hotza, beroa, lokatza, matxurak... baina merezi du! Oso herrialde aberatsa da naturari eta kulturari dagokionez. Gehienok abenturak erakarrira ematen dugu izena, baina benetan asetzen zaituena da bertan ikusten duzuna, bertakoekin duzun hartu-emana.

Ibilbidea hasi aurretik zehaztuta dago?

Miguel: Bai, urtetik urtera aldatzen dute, eta inguru berdinean ibiltzen garen arren, bide ezberdinetatik goaz, asfaltatutako errepideetatik kanpo. GPSan koordinada batzuk kargatzen dizkigute lehenengo egunean eta ordutegia ematen digute. Etapa bakoitza bukatutakoan, hotel berean elkartu behar gara denok, eta antolatzaileek aztertu egiten dute nortzuk pasatu diren adierazitako koordinada guztietatik eta nortzuk gainditu dituzten proposatutako proba guztiak. Horren arabera puntuak lortzen dira, eta bukaeran hainbat sari banatzen dituzte: 4x4 kotxeen kategorian eta 4x2 kotxeetan. Oso giro ona dago, eta guztiok gaude elkarri laguntzeko prest, horregatik banatzen dira ere lagunartekotasunaren eta sinpatiarene sariak, eta horiek dira garrantzitsuenak, antolatzaileek eta parte-



2024ko edizioan, Atlaseko hegoaldean.

hartzailleek aukeratzen dituztelako irabazleak.

Saririk lortu duzue?

Bai, podiumera igo gara: gure kategorian, 4x4an, bigarren geratu gara eta lagunartekotasunaren saria irabaztekoan egon ginen, baina azkenean beste talde bati eman zitoten.

Proiektu honetan parte hartzeko inolako laguntzarik jasotzen duzue?

Gure ezagunek arropa ematen digute, eta edizio honetan herriko bi saltokik jostailuak eta eskola-materiala ematen digute (Villa de Ermuak eta Kopifaxe), eta San Pelayo Eskolak pelutxe pilo bat ere, gabonetako merkatu txikian jaso zituztenak. Horrez gain, gure amak zeramika-eskolan egindako lanak saltzeko baimena eskatu zuen, eta jasotako diru guztia gasolina, inskripzioaren zati bat eta materiala erosteko erabili genuen. Lagundu nahi dutenek, Instagram bitartez jarri daitezke harremanetan gurekin, @tabiok perfilean.

Esperientzia errepikatuko duzue?

Josemi: Bai, datorren urtean Carmen eta Miguel joango dira, Tabiok taldea euren da-eta. Niri ere gustatuko litzaidake talde sortzea, berriro parte hartu ahal izateko, baina garestia da, kotxea behar da... Ikusiko dugu!

**OSASUNA * ESTETIKA
EDERTASUNA**

Marfil

Goienkale 12 *De-epi-ndegi bat
baino gehiago!!*

943 17 28 09

Egokitutako burua
zarbitzeko konketa

MEDITERRÁNEA
VINTAGE STORE

Arropa eta osagarriak

Orbe Karolinako plaza 6
Ermua, Bizkaia

678 359 337

mediterranea_vintage
mediterranea.vintage

Bitsi-denda Tailor prezipica Etoji-denda

Senén
1978

*Diseinuak eta kalitateak
bereizten gaituzte*

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

hanigan's
Irish tavern

Gosari, bazkari eta afariak
eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburuetan 10:00etatik.

Komentukua z/g. 941010527

Laburbiraren emanaldia eta Labur-labur lehiaketa egingo dira apirilean

Euskal Birusa Euskara Elkarteak eta Gazte Asanbladak Laburbirako saioa antolatu dute apirilaren 25erako, osteguna, 20:30ean. Horrekin lotuta, Labur-labur film laburren lehiaketa antolatu dute 16 urtetik gorakoentzat, eta guztira 450 euro banatuko dituzte kategoria ezberdinen artean.

Testua **DORLETA VIDAL**

Euskarazako film laburren zirkuituak, Laburbirak, 21 urte beteko ditu aurten, eta apirilaren 25ean Ermua Antzokian izango da. Bertan, eduki zein estilo ezberdineko zortzi film ikusteko aukera egongo da: *Dena asmatuta dago* (Jone Arriola), *Katalinaren zoria* (Guillermo Ordás), *Erro* (Amaia Lejarreta), *Babesa* (Ander Iruretagoyena), *Mundu berri bat* (Mikel Alvarez), *Zirrara* (Ane Cuesta), *Talkak* (Ilune Diaz eta Jordi Nuet) eta *Betizu buru* (Kim Maiteny Munoa).

LABUR BIRA

Horrez gain, aipatutako bi elkarteek Labur-labur film laburren lehiaketa antolatu dute aurten ere, "Aisialdirako aukera berriak" gaiaren inguruan. Aurkezten diren bideoek 10 minutuko iraupena izango dute gehienez, eta euskaraz izan beharko dira (ez dira onartuko kutsu sexistak, arrazista zein homofoboak dituzten lanak). Parte hartzeko azken eguna apirilaren 26a izango da (ondoko QRaren bitartez), eta sari banaketa maiatzaren 2an burutuko da, 18:30ean Lobianon. Bi kategoria egongo dira: 2005a baino lehen jaiotakoentzat, eta 2006an, 2007an eta 2008an jaiotako gazteentzat.



mari asun 
LORADENDA
Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

Ferreteria ANBOTO
Burdindegia

Orain **KOTXEKO GILTZEN KOPIAK** ere egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25
ERMUA (BIZKAIA)

www.ferreteriaanboto.es

Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOKO

VI. Mendeurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

KARABIXA

KARABIXA KAFETEGIA

Egunero zabalik
08:30etik aurrera

Proba-Leku
Neopaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943170542



Abeletxe nagusien egoitzara bisitaldiak



Institutuan lantzen dugun Proiektu Komunitarioa ikasgaiak bultzatuta, Abeletxe nagusien egoitzara bisitaldiak antolatu dira aurten. Ekimen hau DBHko 2., 3. eta 4. mailako ikasleekin eraman da aurrera.

Nagusien egunerokoa, euren kezka, bizipenak eta historiak ezagutzeko helburua eta, era berean, guk geureak helaraztea. Bisita hauetan elkarrekin pasatu dugun denbora aberasgarria izan da: guk alaitasuna eta elkartasuna eraman diegu, abesti, jolas eta eskutitzez gain; euren aldetik, maitasuna, poza eta bizitzarako gomendioak jaso ditugu. Bisitaldi hauen ondorioak hauek lirateke: Zahartzaroa ez dela hain tristea eta beste modu batera ikus daitekeela.

Martxoak 8 Institutuan



Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko, Ermua BHIko ikasleek eta irakasleek hainbat

ekintza egin zituzten. Ikasleek Ermuko emakumeen biografiekin apaindu zuten ikastetxea, eta emakumeen ahalduntzeari buruzko tailerrak egin zituzten astean zehar.

Ostiralean, martxoaren 8an, hainbat ikasleek eta irakasleek elkarretaraztea egin zuten jolas-tokian. Bertan, biribilean elkartu ziren puntu more bat sortzeko, eta ekitaldiari amaiera emateko, Batxilergoko lehenengo mailako ikasleek mezu bat irakurri zuten.

Emakume Zientzialarien azokak distira Ermuko BHI institutuan

2015eaz geroztik Emakume Zientzialarien Nazioarteko Eguna ospatzen da otsailaren 11n. Egun berezi hau ospatzeko, otsailaren 5ean Zientzia Azoka antolatu zen Institutuan. Bertan, ikasturtean zehar egindako esperimentuak erakustez gain, emakumeek zientzian duten garrantzia nabarmendu nahi izan zen.



Ikastetxeko ikasleek, irakasleen laguntzarekin, gogo handiz prestatutako eguna izan zen. Batxilergoko lehen mailako ikasleak zientzialari ospetsuei buruzko posterrak egiteaz arduratu ziren. 2. mailakoak, aldiz, hain ezagunak ez diren, baina garrantzitsuak diren tokiko zientzialariei buruzkoak. Kartel hauetan emakume hauen lorpen, haiei buruzko bideoak eta argazki osatutako informazioa agertzen zen. Ikasleek, eurek, arduratu ziren kartel hauek hallean zintzilikatzen guztion erakusgarri egon zitezten.

Hallean bertan antolatu zen Azoka. Txoko desberdinetan banatuta, ikasleek Zientzia klaseetan egindako hainbat lan aurkeztu zituzten (luminiszentzia, disezioak, zirkuitulaburrak, mikroskopioz egindako behaketak, kristalizazioak...) eta, txandaka, bisitari zituzten ikasle eta irakasleei azalpenak eman zizkieten.

Ekintzari amaiera emateko, ikasle eta irakaslez osatutako epaimahaiak, parte-hartzaile guztien ahalegina eta sormena aitortzeko, 3 atal ezberdinetan sariak banatu zituen: esperimentuak, bideoak eta kartelak. Irabazleek Donostiako Eureka museorako sarrerak jaso zituzten. Horrez gain, gozokiak banatu zituzten parte-hartzaile guztien artean.

Irribarreak nonahi eta berdintasuna aldarrikatzen, gora emakume zientzialariak!!



Justin denda




1953. urtian jarri zeban Justi Urizar San Martinen bere lehelengo dendia Zubiaurren, erreposteriakoa, eta mantekauak be bertan eitzen zitxuan, txokolate eta bainillazkuak bere akorduz. Gero jateko dendan bihurtu zeban: orixua, bakilaua, indarrak, lentejak, lata haundixetan zetozen sardinak... Dana sueltuan saltzen zan orduan.




Denpora batera Baldespina Markesaren kalera lekualdatu zan, janzteko erropia eta etxerakua erruz salduz: jaixobarrixen faldoietatik hasi eta etxeko ume eta helduak goitxik behera janztera artekua, izarak metroka, amantalak, eskutrapuak, galtzak... "Maitxia" bat agur modura beti, leku estuan atentitzen zeban Justik. Zubiaurreko dendia almatzen modura erabiltzen zeban eta bertako eskaparatia generua erakusteko.

2004an itxi zeban eta gaur egun Shen osteopatia zentroa dago bertan.





Luis Cañas
Amaren
Cair
Ehun
Txakoli Astobiza
Pazo Señorans
Cava Oriol Rossell



Cair
Casar de Burbia
Bodegas Valdemar
García de Olano
Manzanos Wines
Pernord Ricard Wines
Faustino García Martínez.

T.943176075

arrai@arrai97.com | Pol.Goitondo-Goilkoa, Parc.7 - Pab.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

uriarte asesores

**Aholkularitza fiskala
eta lege aholkularitza**

Komentukoa 3 behe · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197
48260 · Ermua · Bizkaia



JON SAEZ

Artea

"Askotan artea erlaxatzeko erabiltzen dugu, bizitzari ihes egiteko, energia deskargatzeko edota plazerra ematen digun ekintza gisa"

Haurra aspertuta dagoenean, haserre dagoenean, gu lasai egon nahi izaten dugunean... "Hartu margoak eta folioak eta egin marrazki bat!". Errekurtso erraza izaten da haurrari marrazteko materiala ematea denbora batez lasai egoteko.

Askotan artea erlaxatzeko erabiltzen dugu, bizitzari ihes egiteko, energia deskargatzeko edota plazerra ematen digun ekintza gisa. Baina hortaz aparte, arteak haurraren garapenean eragin onuragarriak izaten ditu: psikomotrizitate fina eta lodia, adibidez. Gainera, artearen aukera eta material ezberdinekin, kontzeptu desberdinak barneratu ditzakete hurrek: sormena, memoria, arreta, kontzentrazioa, koloreak, formak, ehundurak...

Haurra artearen aldaera ezberdinetan ibiltzean, kontzentratu egiten da, trazu edota formak lortzeko. Emaizta lortzeko kontuz ibili behar da, dena ez hondatzeko, eta hori lortzeko irudimena eta memoria ere erabili beharko ditu. Arteak denbora eta dedikazioa eskatzen ditu, eta horrek pazientzia eta kontzentratzeko gaitasuna garatzen laguntzen die haurrei. Era berean, trazuak egiteko eskuaren mugimenduak kontrolatzen ikasiko du, motrizitate finaz, gerora, idazteko prozesua prestatzeko.

Haurra, lanean dagoen bitartean, bere buruaz jabetuko da. Bere lana, bere ekintza eta mugimenduen araberako emaitza izango da, eta horrek bere erantzukizunaren ideia sortuko du. Horrela ere, taldean lan eginda, bere arlo soziala ere landuko du. Horregatik txikitatik landu behar ditugu arte disziplina ezberdinak, bai bakarka bai taldean, etxean, eskolan edota akademietan. Sozializazioa eta talde lana errazten ditu horrek, haurren arteko lankidetzeta eta komunikazioa sustatuz. Horrela, besteekiko enpatia eta ulermena garatzen ere laguntzen du, beren emozioak adierazi eta besteek ulertzeko aukerak emanaz.

Haurren garapenean funtsezkoa da artea, modu horretan ikasi, hazi eta adierazten ikasteko, horrela haurren hazkunde pertsonal eta emozionala sustatuz. Haurrak sortzaile hazi behar dira, ez artistak izateko, bizitzan sormena, irudimena eta arlo sozialak erabiliz erronkei aurre egiten ikasteko.

MARI PAZ ZELAIETA GALLASTEGI

Trabaku Goiko baserrian jaioa duela 72 urte, etxean kontatu moduan, aitte Ermura motorrean jaitsi behar izan zan elurra egin eban egun hotz hartan Matilde parteraren bila. Hiru neba-arrebetatik nagusiena da, urte askoan andereño izandakoa eta Deustu eta Mallabi artean bizi da.

Testua **LIBE SOLOZABAL**

Nola gogoratzen dozu ume denpora Trabakun?

Guraso, aittitte-amama, osaba-izekoak, nagusi askoren artean bizi nintzan. Danen artean ondo zainduko ninduten, baina danen esana be egin egin behar.

Baserriaz gain, taberna, denda, almazen, dantzaleku eta jostundegia be martxan zeudenez, ingurukoak asko hurbiltzen ziran. Ermura edo Eibarrera tratuarekin joan eta asto gainean itzultzen ziran andrak gogoratzen dodaz bereziki. Orduan ia ez zegoen autorik. Gure aitek lehen kotxea nik hamaika urte neukazenean erosi eban eta zerbitzu publikorako, noski: andrak plazara eroan, umeak eskolara, gazteak jaietara, esnea batu

baserrietatik; pentsu, ogi eta kartak banatu... Urtean behin etxekeekin eta Orrospengokoekin txango bat, ha bai eguna! Dana dala, niri gehien gustatzen jatana, arratsaldero beheko tabernara joatea zan. Han bizi zan Mila, bertako loba, urte bi nagusiagoa. Olgeta asko egiten genuen. Ez geunkan telebista ez telefonorik ezta erositako jostailurik, baina oso ondo pasatzen genduan zotza gordetzen, txapetan, potxiloka, kubike, txitoka, soka saltoan, karta jokoan edo tortoloska.

Tortoloska, zein jolas da hori?

Tortolos edo tabak arkumeeek atzeko hanketako orkatiletan dauzkaten hezurak dira. Lau alde asimetrico dauzkate (aponak, sajonak...) gorantz

botatzen dan pilotatxo bat airean dan bitartean, beste eskuarekin, lurrera botata dauden sei tortolosak alde bardinera ipini eta batu egin behar dira. Nik ez neban lortu nire ikasleak zaletzerik.

Noiz hasi zinan eskolara joaten?

Bost urterekin Geriko eskolara. Ez egoan errepide-rik eta Trabakun hiru lagun alkartu ondoren, beheko bidetik, Uzar eta Ibarreko eskola lagunekin bat eginaz joaten ginan. Itzulerakoa, erromeria izaten zan. Hainbat entretenimendu geunkazan: errekan, zuhaitzekin, baserri inguruetan...Aittek etxean idazten zein



Mari Paz Zengoittek kartzelaren aurrean, Mallabian.

irakurtzen irakatsi eustanez, eta egunero tabernan gelditzen ziran kamioi gidari birekin erdaraz be ikasita nengoanez, bentajarekin emon neutsen hasiera. Jatordua izaten zan arazoa.

Eta eskola garaia eta gero?

Hamar urterekin Berrizko kolegiara ingresoa egitera eta Markinara interna batxilerra ikastera. Hango zazpi kurtsoak zortzitan egin eta ondoren, Bilbora Magisteritza egitera. Argi neukan maistra izan nahi nebala. Monjen esanetan gaztelera makal nembilela eta, ha maika eta hamabi urte nitueneko udetan, partikularra bialdu ninduen. Lehenengoan, Hanbreko Anjelengana eta bigarreanean, San Juango eskolara Mikel Zarate-rekin. Bi horiekin, euskera gaztelera bezala ikasi eta irakasteko hizkuntza zela ikusi neban. Esan beharra dago, orduan, eskoletan gaztelera ikasten zala eta euskaraz egitea galazota zegoela.

Harrezkero irakaskuntzan ibili zara?

Bai. Oraindik karrera amaitu barik nengoela, Bilboko San Adrian auzoko guraso talde batek, euren seme-alabak euskeraz ikas eien, parrokiako lokal bat atondu eben eta hori nahi nebenez, hara joan nintzan andereño. Honen jarraipena da oraingo Urretxindorra ikastola. Nik kurtso bakarra egin neban eta danak bizirik amaitu eben, baina han ez egoan inolako programaketarik betetzerik: 23 ikasle hiru, lau eta bost urtetakoak, neu

"Bidaiatzea bizio bat izan da. Bidaia asko eta luzeak egin ditut, bereziana Mexikora, 1981ean"

"Euskaraz dakitenen artean be erdaraz ari direla ikusteak nire senetik ateratzen nau"

esperientzia barik eta bakar-bakarrik. Martxan egoan ikastola bat nahi neban taldean lan egin eta ikasteko. Bilbon bizi izaten jarraitu nahi nebenez, Portugaleteko Astileku ikastolan bota nebazan 36 urte. Orokorrean gustora lan egin izan dot bertan, halan da be erretiroa eman eustanen eguna izan zan nire egun zoriontsuenetariko bat. Gazte denporan danera heldu nahi neban eta asteburuetan tabernan laguntzeaz aparte, herrian be ordu asko sartzen genduzan: jaiak, hitzaldiak, ikastaroak... Lagun artean ondo pasatuz euskal kulturarekin lotutako ekintza asko burutzen genduzan. 1979tik 1983ra, Mallabiko Herritarrak kandidaturan aurkeztu eta zinegotzi legez egon nintzan udaletxean gizezkoz inguratuta. Gai potolo eta eztabaida guztiez gain, euskara idatziari atea zabaldu geuntsen bertan.

Orain, denpora libre gehiago dozula zer egiten dozu?

Inguruan ikusten dodazan premia batzuei erantzuten be saiatzen nazen arren, denpora gehiena neuretzat nahi dot. Kirola egin, lagun eta etxekoekin egon, zinema, antzerki, hitzaldietara joan, bidaiatu eta gustoko ekintzetan parte hartu.

Zer da gustokoen dozuna?

Bidaiatzea, bizio bat izan da. Egin dodan bereziana 1981ean bi lagunekin batera Mexikora joan nintzaneko da. Bidai asko eta luzeak be egin dodaz. Beti ere, geure kontura ibiltze gustatu jata. Azkenaldian hurbilagotik eta denporaz laburragoak egiten doguz. Orain bizio barri bat dot. Bazkalaurrean, lagunekin pote bat edo bi hartzea.

Zerk ateratzen zaitu zure senetik?

Euskaraz dakitenen artean be erderaz ari direla ikustea.

Zure bertute bat?

Aldatzen joan naz, gaztetan espiritu borrokalariagoa neukan. Orain ez dot hainbeste ernegatzen, gauzak askoz ere gehiago erlatibizatzen ikasi dot eta ulerkeragoa naz. Ez dakit bertutea dan...

RIF
ITURGINTZA
KONPONKETAK
Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81 / 688 71 27 10

ONAK LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
943 17 47 44

SAN PELAYO
Zuri egokitzen den odontologia
La odontologia que se adapta a ti
Dra. CLATZ GARICA ARREGUI
PADI 943 17 04 04
Programa Apoyo Dental Infantil Gobierno Vasco
San Pelayo Zaharkalea 5 48260 Ermua (Bizkaia)

1952

E R M U A

Urte horretako azaroaren 9an atera zuten argazkia, eta atzean jarri ziren ezkerretik eskumara begiratuta, Julita Zenarruza-beitia, Begoña Bergaretxe, Igone Ortiz de Zarate, Victoria Amillategi, Milagros Arribabalaga, Antonia Txurruka eta M^a Luisa Mugerza. Jarrita Elisa Albizu, Pastora Ormaetxea, Felisa Zenarruzabeitia, Margarita Arrizabalaga eta Garbiñe Erdoiza.



1983

M A L L A B I A



Korrikaren 3. edizioa 1983ko abenduaren 3tik 11ra burutu zen: Baionatik Bilboraino. Maribi Carrilloren esanetan, edizio hura larunbatean pasatu zen Areitiotik, goizeko 4:00etan, eta lagun taldea Areitioko ermitan egon omen ziren Korrika etortzeko zain. Argazki hau ordukoa da eta bertan agertzen dira: Pello eta Jose Luis Mugarza eta Maribi Carrillo bera.



Entzumenaren doako azterketak
Audifonoetan azkenengo teknologia

IRAGARKI LABURRAK

Aierra Estilistak ile-apaintzailea behar du, esperientziarekin eta lan egiteko gogoarekin.
© 626524949

Neska euskalduna eskaintzen da haurrak zaintzeko, goizez zein arratsaldez. Esperientziarekin eta magisteritza ikasketekin.
© 648 625 209.

Haurrak zaintzeko neska eskaintzen da, esperientziaduna eta Haur Hezkuntzan graduatua. © 685 584 587

Matematikako, fisikako eta kimikako klase partikularrak eskaintzen dira DBHn dauden ikasleentzat © 688 683 655.



Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezu elektronikoa helbide honetara: drogeten@gmail.com
Azken eguna: **Apirilaren19a**.



Martxoaren 1ean Zorionak **Ander** txirrindulari txapeldunari! 11 urte! Segi horrela! Ondo pasa! Besarkada bat familia guztiaren partez!!!



Martxoaren 5ean Zorionak **Aner**!!! Muxu handi bat familia guztiaren partez! Asko maite zaitugu!!!



Martxoaren 4an Zorionak **Ane**! 7 urte gure etxeko printzesatxoak, badoa gorutz! Segi horrela! Musu potolo-potolo bat familia guztiaren partez.



Martxoaren 29an Zorionak **Intza**!!! 7 urte beteko dituzu! Segi beti bezain alai maixia. Patxo bat familia osoaren partez.



Apirilaren 9an Zorionak **Ekain**, nire aingerua. Gozatu zure 11. urtebetetzea. Jarraitu gure bizitzak momentu ahaztezin ez betetzen.



Martxoaren 18an Zorionak **Pol**!!! 6 urte!! Orain esku biak behar dituzu jarraian kontatzeko. Gozatu egunaz! Muxu erraldoi bat!



Apirilaren 24an eta 25ean Zorionak **Unax**! 6 urte, txapeldun! eta zorionak **Luken** zure 1. urtebetetzean, bitxito! Maite zaituztegu!!!



Apirilaren 11n Zorionak **Libe**!!! Bost urte bete dituzu!. Asko maite zaitugu. Musu bat amama, Lucía, amatxo eta aitaxoren partez.



Apirilaren 19an Zorionak **Diana**!!! Ondo pasa zure urtebetetzean. Muxu handi bat Lucía, Libe eta aitaxoren partez. Asko maite zaitugu.



Apirilaren 3an Zorionak **Oier**, 4 urte! Zoriontasunean txapelduna! Zelako mutiko majoa zaren. Ilargiraino eta buelta maite zaitugu!

ARRIETA CORDEVI
Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...
...prezio eta kalitate
ezin hobean.
VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

HARATEGIA - URDAITEGIA
MIGUEL
BERTAKO OKELAK
ETXERN EGINDAKO TXORIZO TXISTORRA ODOLOSTE ETA KROKETAK
PROBALEKU 3 - 943 170565
ERMUA

SEHIGA
PROTECCION LABORAL
PLAN BARRERAKO
GRANDURA
Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

Infreñu Taberna
Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

ileapaindegia
Silvia
peluqueria
Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata 8:30-13:00
943 170474
688819336

30 APIRILEKO AGENDA

ZINEA

Hilak 1:

"La estrella azul"

6tik 8ra:

"Tratamos demasiado bien a las mujeres"

+ "Extorsión"

13tik 15era:

"El clan de hierro"

+ "Puan"

20tik 22ra:

"Los pequeños amores"

+ "Hotel Royal"

27tik 29ra:

"Pájaros" +

"Los niños de Winton"

Ermua Antzokian.

Hainbat ordutegi.

ZINE-KLUBA

Hilak 4:

"How to have sex"

Hilak 11:

"Radical"

Hilak 18:

"Club Zero"

Hilak 25:

2024ko Laburbira: film laburren emanaldia.

Ermua Antzokian. 20:30ean.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 7:

"La familia Beneton"

Hilak 14:

"Cazafantasmas. El imperio helado"

Hilak 21:

"Johnny Puf. Misión secreta"

Hilak 28:

"Dragon Keeper" (Euskaraz)

Ermua Antzokian. 17:00etan.

MUSIKA

Hilak 20:

Udaberriko jaia, hainbat Djen eskutik.

19:00etatik aurrera.

Orbe kardinalaren plaza.

Hilak 20:

Abesbatzen kontzertua: Federico Olmedo (El Burgo de Osmá) eta Pispillu (Ermua) abesbatzak.

19:45ean. Santiago elizan.

Sarrera doan.

Hilak 24:

Alboka Musika Eskolako ikasleen kontzertua.

19:00etan.

Ermua Antzokian.

Sarrera doan.

Hilak 26:

Kontzertua: Bengo. 20:30ean. Ermua Antzokian.

Sarrera: 10 €

Hilak 27:

Kontzertua: Osho.

20:30ean

Lobiano Kulturgunean.

Sarrera: 5 €.

DANTZA

Euskal jaia

Hilak 12:

20:00etan: Kalejira Patxangoi elektrotxarangarekin.

Hilak 13:

12:30ean: Dantza poteoa eta Ermuan Kantuan kalejira, Patxi plazatik irtenda.

19:00etan: Gasteizko Eguzkilore eta Txindurri taldeen erakustaldia.

19:45ean: Larraindantza.

20:00ean: Erromeria Sukar taldearekin.

Hilak 14:

11:00etan: Kalejira.

12:30ean: Dantza erakustaldia.

16:30ean: Dantza ikastaro gidatua.

17:30 Plaza dantza Ttipika taldearekin.

Ekitaldi guztiak Orbe kardinalaren plaza.

Hilak 19:

Dantzaren Nazioarteko Eguna: Erakustaldia Txindurri eta Fit Gipsy Dance taldeen eta Taupada Dantza Eskolaren eskutik. 19:00etan. Orbe kardinalaren plaza.

ANTZERKIA

Hilak 12:

"Del color de la leche", Tanttaka taldearen eskutik.

20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10 €.

Hilak 28:

"Almazanean", Txalo Produzioen eskutik. 20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10 €.

UMEENTZAKO EKITALDIAK

Hilak 13:

Ipuin-kontaketa ingelesez. 17:30ean.

Lobiano Kulturgunean.

Hilak 27:

Ipuin-kontaketa. 17:30ean. Lobiano Kulturgunean.

BESTELAKOAK

Hilak 27:

Gaztela-Leoneko eguna: Kalejira La Pacheca txarangarekin.

13:00etatik 15:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

+ Puzleen erakusketa Merkatu Plazan.

Hilak 28:

Mahai jokoan jardunaldia. 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era.

Orbe kardinalaren plaza.

Patxi López



**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**



URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolajea
- * Errealak
- * Giltzak
- * Sarrailagintza
- * Kit altzarriak

Zeharbatea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

PRO
arraindegia




**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

GREMIOEN

GIDA



ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA
LUIS VALLE
**Bainugelen erakusketa**
943 17 15 56
Tailerra
943 17 23 56
Goienkale z/g

PERTSIANAK
**ORBE**
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak

Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixu 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 96 60
persianatorbe@gmail.com

ERROTULAZIOA
ROTEK
R Ó T U L O S
Argi errotuloak · 3D letrak · Ibilgailuak
Erakustokiak eta azokak · Formato handiak
Publizitate kanpainak · Led pantailak
943 17 00 36
www.rotekrotulos.com
ROTEK
LED PANTAILAK

ETXETRESNAK
**Egaña**
ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA
Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

ITURGINTZA
ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA
**PALACIOS SM**
ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA
GREMIOEN KUDEAKETA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)
info@palaciosfontaneria.com
www.palaciosfontaneria.com
660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23

ELEKTRIZITATEA
**ELECTRICIDAD**
BETA^{CB}
ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak
- Berokuntza
- Gaueko tarifa
- Erradiadore elektrikoak

Diputazioa 11, behea
ERMUA

943 17 65 25
656 70 23 60

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com

**ERRO**

Amaia Lejarreta

DENA ASMATUTA DAGO

Jone Arriola

KATALINAREN ZORIA

Guillermo Ordás

BABESA

Ander Iruretagoyena

MUNDU BERRI BAT

Mikel Alvarez

ZIRRARA

Ane Cuesta

TALKAK

Ilune Diaz eta Jordi Nuet

BETIZU BURU

Kim Maiteny Munoa

APIRILAREN 12tik
MAIATZAREN 12ra**EUSKARAZKO FILM LABURREN
XXI.ZIRKUITUA · 2024****LABUR
BIRA****Tokia: ERMUA ANTZOKIA****Eguna/Ordua: Apirilak 25. 20:30ean****Antolatzailea: Euskal Birusa Elkarte
Gazte Asanblada**

Info +

